

INDIA'KO BARRIAK

Tolosa'ko nire lagun Aita Frantzisko Zubeldia joan dan udan Loiola'n egon zan, emen neugaz egun batzuk igaroten...

India'ra barriz joan eta ango barriak bialtzen deustaz:

"Ni bizi nazan SURAT uria Arabia'ko itsasora begira dagoan kaia da.

Surat izenak emengo izkuntzan "garbia" esan gura dau, baina ori ez da egia, uririk zikinena dalako. Bizileku oneko rain 30 urte 600 mila bizilagun zituan, eta gaur 2 miliotik gora ditu... Uri onek ur zikinak lurpetik eroateko "drenajerik" ez dauka, eta orregaitik kale bazterrak usain txarrez naskagarri dagoz.

Azken uriolean 10.000 etxe-abere itota il ziran, eta garaiz erre ez ebezalako izurrite ilkorra alde guztietan zabaldu zan: birietako gatxa, sukarrak, larrialdiak... baita ilak ere.

Lenengo egunetan 300.000 lagunek bildurtuta uritik alde egin eben, baita osagileak ere. Jendeak asarrez geisoetxeak eta klinikak itxita egozalako erre egin ebazan...

Orain izurritea gitxitu egin dala emoten dau, eta jendea bakotxa bere etxera etorten asi da... Eskolak beintzat zabalik dagoz.

Guk, misiolariok, geisoen artean osagarriak eta janariak banatzen lan andia egin dogu...

"Bubonika" izurriteaz kutsatuta egozan eunen bat geisok, euren geiso-etxetik iges egin dabe, eta inguruko errietan euren geisotasuna zabaltzen asi dira...

Eta Aita Pablo Gil neure beste lagun naparrak idazten deust:

"India'ko lurralde zabal onetan 900 milioi bizi gara... Eta ni GUJERAT izeneko estaduan nago...

Bagilean MONZON uriolak gure ganera etorriko dira. MONZON ekatx ori emen pozez eta bildurrez artzen dogu... Pozez, urte guztirako naiko urik eukiko dogulako. Bildurrez, ibaiak ganezka egin eta dana ondatuko dabelako.

Joan dan urtean, NARMADA ibaiak -India'ko andienetakoa- 9 metro bere neurritik gora egin eban,

eta 617 izan ziran ildakoak, eta 800.000 euren etxeak eta ondasunak galdu ebezanak.

Au da MONZONen alde negargarria, baina beste aldetik, landa egarrituak euria edanez lorez erneten dira, lurpeko urtegiak urez beteten, eta soloak uzta emonkorrez aberasten... Izadi guztia poz eta atseginez loratzen da...

Beste aldetik, KHANBAHT urian ikastetxe eder bat jaso dogu. Obeto esateko ia amaitu dogu. Len-go txikia zan... Datorren ikastarorako zabalduko dogu...

BHAL izeneko gure beste ikastetxeak mutil-neskentzat barnetegi edo internado bat dauka... Baina guk gitxien uste dogunean ikasleak euren etxeetara iges egiten dabe... Irugarren aldiz iges egiten dabenak ez doguz geiago artzen... Aurten iges egindakoak gitxiago dira...

Gurasoak euren umeentzat eskolaren bearra sentitzen asi dirala, uste dot.

Goikoetxea'tar Iñaki S.J.



B IZKAITARRAI BIZKAIERAZ